

# Pil bi ean

*Euskera Elkarte*  
*Soraluzeko Aldizkaria 2000ko martxo* 22. alea



*Estreeesatua?*

*Yoga izan leike  
bizitza hobeto  
eramateko bidia*



*Soraluzeko  
Euskara Batzordia*

*“Eskatu ofizioko  
abokatu euskalduna.  
Zure eskubidea da”  
kanpaina martxan*




*Arrate eta Juantxo  
markak hausten*




*Herri kontsulta eta  
hauteskunde  
orokorren emaitzak*



# **GOI S.A. industriak**



## **Tornileria-estanzazioa eta extrusioa hotzean**



**Tfnoa. 943-752100**  
**FAX. 943-751712**

**20590 SORALUZE**

**Eguenetan elkartzen gara  
iluntzeko 9retan eta zuretako  
atiak beti zabalik egongo dia.  
Etorri zaitte, maixuen etxean, beheko  
pisuan erdixan egongo gara.  
Laster arte!!**

**Pil  
bi ean**



## Kolaborazioa



Klemente

Elizarako bidea ongi ikasita dabil aspaldian Klemente. Abadetxe azpiak meztatarako jarri dituzte eta ez dauka aldapan gora ibili beharrik. Jeiki eta horixe izan du zereginetan lehena; periodikoa eta ogia gero hartuko ditu, etxerako bidean.

Heriotzaren eta heriotza ostekoaren beldurak, zahartu ahala, erlijiora bultzatu dute. Irudimena moteldu egin zaio eta bizitasuna galdu du, eta horrek zabaldu egin dio erlijio sentimendua. Lehengo distrakzio eta sentsazio mundu hura urruntzen hasi zaio, eta bere existentzia zerbait iraunkorrean finkatu beharra sentitzen du, hutsik emango ez dion zerbaitetan.

Elizan kintoak baino ez ditu aurkitu, betikoak. Martitzen buruzuria da eta ez da Domeketako jendetzarik. Ohikoa duenez, atzeko lerroetara egin du. Bidean Maritxu agurtu du lehenengo, Mertxeri buruaz egin dio diosala, eta, Antonioren ondoan jarri aurretik, egun on esan dio Maria Pilarri.

Belauniko jarri da, begiak itxi ditu eta marmar ixilean murgildu da. Orduan, laino baten ostetik bezala, Jainkoa agertu zaio; betiereko eta inmakulatua, garbia eta gozoa, gainetiko galtze eta pena guztiak kentzen dizkiona. Eta Klementek beste puska batean bizi nahi duela esan dio, ez duela oraindik joan nahi.

Mikel Leunda

Udaleko euskara teknikaria

## Editoriala

Hainbeste elekziño zaratots ein da gero zer topauko eta oin arte egon dian bardinak jarraitxuko dabela gero be poltronetan. Baina hauteskunde giro honek be euki dau beran saltsia, ixa karnabalekin juntau da ta. Nahiz eta karnabaletan innobaziñua falta gure kalietan. Ez al zan ba sal-laua izengo gobiernoko bibotedun gizontxo bateronbat disfrazatzia? "Plaentxi va bien" edo "Sr. .... vayase" eta horrelakoak esanez...

Bromak aparte datu tristia da baina esan biharrekua oin dala 15 urtetik hona karnabaletako martitzenak emon daben beherakadia. Oker ez banao behintzat, gaueko nausixen konkursuan taldeka 3 talde parte hartzaile eta banaka parta hartzaile bakarra egon zan... Nun gelditxu eta da oin dala urte batzuk bizi izeten ginuan ambientia, nahiz eta herriko tiporik artistienak beti irabazi, eta zein dan esan biharrik ez dao, aurtan be bera izan zan da diferentzia markatzen zebana. Hurrengo urterako sakon begiratu bihako da, ia merezi daben karnabalen jaixak hainbeste luzatzia gauza onerako...

Besterik barik, komentatzia, Pil-Pilean danondako zabalik dauan zoro-kuadrilia garala eta bateronbatek elkartia edo aldizkarixa barrutik ezagutu, parte hartu edo soil soilik jakinmina asetzia nahi badau eguenero topauko gaitxuala gabeko 9etatik aurrera maisuen etxeko beheko pisuan.

**Telegrapak:** Tristura haundia ematen du autobus parada kartelez betetzen hasi direla berriro ikusteak. **STOP.** Zenbat pertsona zeuden ordu bietan Inauteri asteartean plaza zaharreko musika giroan? Erantzuna: 0. Zerbait pentsatu beharko da... **STOP.** Aurrera doaz gasa sartzeko obrak eta dirudienez kable bidezko telebista ere sartu behar omen dute; ez dugu ez inori enbidiarik izateko arrazoirik. **STOP.** Gila zubiko autobusen informazio makiltxo laranja ordutegien orri gabe jarraitzen du. **STOP.** Sagarrekako sarrerak Hollywood ematen du: Chapeau! **STOP.** Formalak izan eta hurrengo alerarte!

## Pil Pilean

**Argitaratzailea:** *Pil pilean euskara elkartea.*

**Lan taldea:** *Egoitz Unamuno, Inaki Alberdi eta Eduardo Pombar, Gurutze Ariznabarreta, Amaia Agirre, Aitziber Gantxegi, Jose Ramon Gomez, Elene Alberdi, Pedro Deza, Ubane Madera, Bittor Trebiño, Oier Oregi, Gorka Prieto, Aitor Madrid, Xuban Katalan, eta Sabin Mendizabal.* **Publizitatea:** *Inaki Alberdi eta Elene Alberdi. (943751304 tel.)* **Banaketa:** *Pil Pilean.* **Tirada:** *1700 ale.* **Inprimategia:** *Gertu Koop.*

**Helbidea:** *Maixuen etxea Frontoi kalea 5b behe, telefonoa 943 75 13 04 PK 121 20590 Sorluze*

**Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

## Oharra

**Pil-pilean-etik** deia egin nahi dotsegu plaentxiako gizaseme ta alaba guztioi euskariaren alde zeozer egittia gura badozue, atiak zabal zabalik dittuzuela geure elkartian lan egitteko. Zatozie datorren **apirilaren 13an** egingo dan bilerara, maixuen etxea Frontoi kalea 5b behian zuon zain egongo garaz.

## Denda berria



**Gotzon Agirrezabal**  
Tel/Faxa: 943 76 72 52

**ORDUTEGIA**  
asteleheneetik zapatara:  
10:00-13:00  
eta 16:00-20:00.

**T**  
textil  
agirrezabal  
**A**

AIT-ITV eta autobus  
geltokitik 100 metrara



• Alfonbrak eta maketek (fabrikatik zuzenean)  
• Handartzarako taotak (belgiarrak)

- Ehunak eta oihalak
- Tapizeriak
- Kortinak
- Nordikoak
- Era guztietako etxerako gaiak



Amillaga industrialdea, 5 - BERGARA - Renault-en ondoan

## Aldizkari berria, hots, "SORALUZeko UDALA"

Orain egun batzuk "Soraluzeko Udala" deitzen den aldizkaria jaso nuen nere buzoian. Lehen orrialdean guztiz argi utzi nahi izan dute dohainiko alea dela, Pil-Pilean izango ez balitz bezala... bestela zergaitik zegoen ba nire buzoian? Hemen ez du inork ezer erregalatzen. Nire harridurarako letra haundiz irakurri nuen lehen gauza zera izan zen: "Aldizkari honek informazio hutsune bat bete nahi du"...(Barruan irakurri ahal daitekeenez hutsune hau Udalaren eta herriaren arteko komunikazioari dago-kiona da). Nire galdera ondorengoa da, zergaitik ez du Udalak herrian hila-betekari den aldizkariarekin (Pil-Pilean-ekin) kontakturik izan inoiz, aspektu honetan, hutsune hori betetzearen alde? Zein da aldizkari berri honen benetako helburua?

Pil-Pileanekook behin eta berriro entzun behar izan ditugu alderdikieriatan erortzen garela eta "plumeroa" ikusten zaigula eta horrelakoak, nahiz eta horrela ez izan, beti esan izan baitugu aldizkaria denontzat zabalik dagoela. Izan ere, lan taldean jende desberdin asko eta pentsamendu era askokoak baikara. Orduan ez al da zilegi "Soraluzeko Udala" aldizkariak alderdikieriatan eroriko ez direla esaten dutenean, ez sinestea?

Nire ustez, pertsonalki, eta horregaitik idatzi dut gutun hau, ez bainuen nahi editorialean sartzerik, ( orduan lantalde osoaren izenean joango bailitzateke ), Udalaren aldetik inoiz ez da batere interesik eta are gutxiago konfidantzarik izan Pil-Pilean aldizkariarengan. Hala eta guztiz, esan herritar guztiei, gauza hauek animatu besterik ez gaituztela egiten eta egunez egun gero eta informazio hobea eta guztiz independentea ematen jarraituko dugula. Besterik gabe, eskerrikasko Pil-Pileanen irakurle izatearren!

Gorka Prieto Oregi



Ukaldi judo taldeko kideak

Martxoaren 18 an Azpeitian jokatu zen Kimura judo txapelketan, Soraluzeko Ukaldi Judo Klubak emaitza ezin hobea lortu zituen. Lehenengo mailan 55 kilokoan; urrezko domina Jose Luis Nietok eta brontzezko domina Daniel Santosek, 36 k.; zilarrezkoa Jon Lamarianok eta 40 k. ; brontzezkoa Mikel Irisarrik. Bigarren mailan 51 k.; zilarrezko domina lortu zuen Mikel Hernandezek eta 36 k.; brontzezkoa Aritz Ramirezek. Azkenik hirugarren mailan, Rauk Santos eta Leire Garciak, brontzezko domina bana lortu zituzten. **ZORIONAK !**

## Oharra

Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta bere datu pertsonalak agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, **Pil-Pileanek** horretarako eskubidea izango du.

Benito

Anaiak

Altzariak

Santa Ana 26 tfnoa: 943752047



**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak  
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11

Tfnoa: 75 10 02

SORALUZE

**ATXOLIN TABERNA**

Pintxo bereziak, hotzak eta beroak

Elizburu kalea 1 Tfnoa: 943752131

SORALUZE

## Udaberrixak aldaketarik sortzen al dotsu?



**Inazio Larrañaga**  
19 urte ikaslea

Nik uste dot udaberri-xan danok garela pozixau, berua dator, oporrak hur-biltzen datoz... ez udabe-rrixa dalako, baina bai beste gauza hauengaittik gogua hobetzen dosku.

Nik uste dot gauza oro-korra dala, danok egoten garala antzerako.



**Iruñe Larrañaga**  
86 urte etxeakoandrea

Neri udaberrixak begi-xetara kaltia ekartzen dos-ta, alergixia eukitzen dot eta aldaketiak begixetara kaltia ekartzen dosta. Uda-berrixa politta da, edarra, baina bolara hori pasau eta gero egoten naiz ni hobe-to.



**Jabier Abeitua**  
33 urte langilia

Neri udaberrixak ez dosta aldaketarik ekar-tzen, gogua pixkat igo bai-na bestelakorik ezebez.

Neretako asko aldatzen dira gauzak, kukuak abes-ten dabe, txorixak goizian entzuten dira, beste poz bat eukitzen da, gogo ho-bia eukitzen dot. Nik ez dot alergixarik eukitzen, poztasuna etortzen da.



**Luis Elorza**  
79 urte jubilatua



**Maite Zabala**  
29 urte Etxekoandrea

Goizetan jaiki eta egu-raldi ona badago umore hobia eukitzen dot, udabe-rrixak baino gehixago eguraldi onak pozten nau. Ez daukat ez alergixarik eta ez antzerakorik eta u-daberrixak gogua altxa-tzen dosta.

Udaberriak eguraldi ona badakar berarekin, anima-tu egiten nau, eguzkiak animatzen nau. Suposa-tzen da udaberrian egural-di ona egin behar duela nahiz eta gero askotan ho-rrela ez izan. Udaberriak gogoa hobetzen dit.



**Maria Eugenia Etxabe**  
44 urte irakaslea



**JATETXEA**  
**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

**ALAITZ TABERNA**

**EZOZI ETORBIDEA**  
**TFNOA: 943751190**  
**SORALUZE**



# Yoga: Bizitza oreka topatzeko bidea

*Beti presaka eta estresak jota bizi garen gizarte honetan zeozer behar izaten dugu bizitzaren gora beherak lasaigo hartzeko eta hori lortu nahian, Sorraluzen Yoga ematen duen irakaslearengana jo dugu argibide eske.*

**Jabi**, irakasle bilbotarraren honen us-  
tez, bidaia bat bezalakoa da yoga, hau da,  
"gure barrura edo barnera egiten dugun  
bidaia bat da". Bidaia honek arnasketare-  
kin, erlajazioarekin, gorputzarekin (hur-  
bilago ditugun gauzekin) izaten du ha-  
siera, eta urrunago dagoenarekin amai-  
tzen du, pertsona bakoitzak bere esentzia  
gauzatuz.

Definizio honek nahi duena yoga zer  
den argi lagatzea da eta mundu hau eza-  
gutzen ez dugunok yogari buruz dauzka-  
gun mito guzti hoiak kentzea "Jendeak  
yoga zer den ez daki, jendeak dakiena in-  
dian eta faikirismoan egiten dena da. Fa-  
kirismosan yogako teknikak kontrolatzen  
dituzte baina show moduan antolatzen  
dute" Jabik dioenez.

Orduan, argi geratu behar da, yoga  
bidaia bat dela eta osasunerako onura  
handiak ekartzen dituela, esaterako, ar-  
nasketa ondo egin, flexibilitatea, hormo-  
nen funtzioak kontrolatzea, erlajatzeta,  
ansietatea eta estresa kontrolatzea.

Gauza guzti hauek lortzeko "Jata Yoga"  
egin beharko genuke eta hauxe da Jabik  
erakusten duena bere eskoletan. Eskolak

*"Yoga bidai bat da eta  
osasunerako onura  
handiak ekartzen  
ditu"*



*Jabi, sorraluzeko yoga irakaslea*

hiru ataletan banatzen ditu eta edozein  
pertsonak praktikatu dezake yoga. Lehe-  
nengo atalean arnasketa lantzen dute, bi-  
garrenean "asanak"(posturak) eta azke-  
nean erlajazioa.

## Arnasketa

"Jata Yoga"n arnasa nola hartu behar  
den erakusten dute. Arnasketa da nerbio  
sistemara heltzeko bide bakarra. Nerbio  
sistema bi ataletan banatzen da *sinpatiko*  
eta *parasimpatiko* sistemaren. Azkena  
erabiltzen badugu lo egiterakoan, orduan  
arnasketa ondo egiten dugunean *pa-  
rasimpatikoan* jarri behar dugu gorputza  
eta horrela erlajatu egingo gara.

## Asanak

Asanak posturak dira gorputza osasuntsu  
eta armonian egoteko. Posturetan  
garrantzitsuena ez da mugimendua, soin-

ketan bezala, arnasketa eta posturen ar-  
tean egon behar den erlajazioa baizik.

*"Postura bat hartzen duzunean ondo  
hartzen baduzu arnasak gorputzean efeku  
haundiak sortzen ditu (muskuluetan,  
tendoietan etabar)*

## Erlajazioa

"Erlajazioa saria da" esaten du Jabik.  
Momentu honetan lortu behar duguna da,  
erlajazio sakon batean sartzea, gure gor-  
putza deskantsatzeko.

Hiru atal horietan banatzen dira bai  
"Jata Yoga" eta bai Jabiren eskolak. Hau  
da Jabik kontatu ziguna baina berak  
zioena kontrastatzeko bere ikasle bati iri-  
tzia eskatu diogu.

**Marisa Santome:** Lehen ezin nituen pos-  
tura batzuk egin eta orain egin ditzaket.  
Nere lanarengatik nik beti izan ditut


**LAKUESTA OPTIKA**  
OPTIKO-OPTOMETRISTAK

IKUSMEN ARAZOEN FROGAK ETA ARGIBIDEAK

ARGAZKIAK ERREBELATZEN DITUGU

SANTA ANA 22  
TEL: 943753059

20590 SORALUZE  
(GIPUZKOA)



sorbaldan minak eta orain sorbalda hobeto dut. Gero gauean, loa hartzea kostatzen bazait erlajazio ariketak egiten ditut, eta gero bizitza ere lasaiago hartzen dut.

Nik denbora gutxi dut eta ez dut asko egiten baina badago jendea denbora daukana eta gehiago praktikatzen duena eta jende hori ni baino hobeto sentituko da eta onura asko lortuko ditu.

Badakizue, kontatu dizuegun pratika hau ikasi nahi baduzue galdetu Polikiroldegian eta eman izena.

**Eduardo Pombar**



Marisa Santome: " Bizitza lasiago hartzen dut "

## Soraluzen ere kanpo zorra ezabatzeko herri kontsulta

Espainiar estatuko gobernurako hauteskondeekin batera egiteko baimena ukatua izan ondoren, joan zen martxoaren 19 an egin zen herrialde txiroei kanpo zorra ezabatzeko asmoarekin antolatutako herri kontsulta. Kontsulta herrikoian, 16 urtetik gorako edozein pertsonak izan zuen gai honen inguruan duen eritzia emateko aukera eta halaxe egin zuten herritar askok eta

askok. Kontsulta honen bidez, herritarrei, kanpo zorrak hainbat eta hainbat herrialderi sortzen dizkieten kalte larriak ezagutzera eman nahi izateaz gain, errespetatua izan behar duen herritarren eritzi eta hitzaren bitartez, herrialde txiroenek espainiar estatuarekin duten kanpo zorra ezabatzea ere nahi da. Animo eta segi aurrera !

### GALDERAK

1. Kanpo zorra kendu ?
2. Zorraren dirua garapenera bideratu ?
3. Legezkanpo aberastu direnak ikertu eta dirua itzuli ?

Errolda	3696
Partehartzea	420
18 urtetik gora	410
16-17 artean	7
Baliogabeak	3

	BAI	EZ	ZURIAK
1. Galdera	409	5	0
	98.79 %	1.21 %	0.00 %
2. Galdera	405	7	2
	97.83 %	1.69 %	0.48 %
3. Galdera	407	5	2
	98.31 %	1.21 %	0.48 %

Bozkatzeko mahaiak udaletxepean izan ziren goiz eta arratsaldean (bolondresei esker)

## "Eskatu ofizioko abokatu euskalduna. Zure eskubidea da" kanpaina martxan



Aitor Idiakez kanpainaren arduraduna

Honako kanpaina hau Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Euskararen Batzordeak jarri du martxan Euskarazko Ofizioko eta Atxilotuei Urgazpeneko txandak indartzeko asmoz.

Bi txanda hauen arabera gipuzkoar orok eskura dezake abokatu baten zerbitzu profesionala. Ofizioko txandak zuzenbidearen arlo guztiak betetzen ditu, penala, laborala, kontentzioso administratiboa, zibila eta familia, txanda bakoitzean 100 abokatuk baino gehiagok izena emanda dutelarik.

Kanpaina honen bidez jakinarazi nahi zaie gipuzkoarrei bi zerbitzu hauek eskura dituztela eta berauek erabiltzea beraien eskubidea dela.

Informazioa eta txarteleria Gipuzkoako komisaldegi (udal-tzaingo, ertzaintza etab)guztietan helerazi zaie. Beraz edozein atxiloturi esan beharko litzaioke bi txanda hauek daudela eta erabiltzeko eskubide osoa duela.

Aitor Idiakez arduradunaren esanetan horrelako ekimenek herritarren euskara eta bere defentsa eskubidea bermatzeaz gain justizia administrazioa euskalduntzeko bidea zabaltzen dute. Bestalde, edozein zalantza argitzeko Gipuzkoako Abokatuen Elkarkargoko zenbakia utzi du denon zerbitzura 943-44-01-18.

Gururu

**Juan Alberdiri Egindako desafioaren gaineko azken berriak**

Zoritxarrez ez dago berririk Juan Alberdik eta beste 16 korrikalariak jokatu behar zuten desafioaren inguruan. Antza denez, 16 korrikalari horiek azken hilabeteotan izan diren festak eta afariak direla eta, lehenago zeukaten egoera fisiko bikain hura galdu dute, eta honenbestez, denbora pixkat beharko dute, berriz ere, lehen zeukaten maila ikusgarria berreskuratzeko. Apostuzaleok bitartean, zain egotea besterik ez daukagu, desafioa laster jokatu duten esperantzarekin noski. Eta badakizue! inongo berririk balego, lasai, beti bezala Pil Pileanek esklusiban eskeiniko dizue eta!

**Euskararen gizarte erakundeen kontseiluak herriz herri azalduko ditu Plan Estrategikoaren emaitzak**


Pasa den hilean Donostian egindako prentsaurrekoan, Kontseiluko ordezkariak Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoaren emaitzak gizarteratzeko, "herriz herri" hainbat hitzaldi egingo direla adierazi zuten. Deba Arroari dagokionez, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eibar, Elgoibar eta Oñatin izan edo izango dira hitzaldiak. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak azpimarratu zuenez, "askotan, inkestak egiten direnean eta, herritarrek euskararen aldeko jarrera daukatela ikusten da. Eta oraintxe da borondate horren fruituak biltzeko garaia. Leloren bat aukeratu behar bagenu, "Eta orain konpromisoak" aukeratuko nuke nik." Bestalde, "Bai Euskarari" kanpainan euskararen aldeko konpromisoa hartu zuten gizarte eragileek, maiatza arteko epea dute beren konpromisoak zehazteko. Horrela, Planak aurreikusitako konpromisoak betetzen dituzten gizarte eragileek Ziuertagiri bat jasoko dute prozesuaren amaieran. BAI EUSKARARI! AURRERA GOAZ!

**Fernando Buesa eta Jorge Diez-en hilketen kontrako konzentrazioa**



Joan zen otsailaren 23 an, Gesto por la Paz talde bake zaleak deituta, konzentrazioa egin zen Plaza Berrian. Konzentrazioa bildu ziren herritar ugariak E.T.A.k Gasteizen egindako hilketak gaitzetsi eta bakearen aldeko aldarrikapen bat egin nahi izan zuten.

**Sagardotegira joan ziren PIL-PILEAN-ekin**



Martxoaren 10 ean, Pil Pileanek antolatutako autobusean, Hernani inguruko sagardotegi batera joan ziren 30 bat lagun. 21:00 rak aldean afaltzen hasi eta 00:30 ak alderarte, trikitixa, kantu zahar eta bertsoz alaitu zituzten betiko moduan bertaratu ziren denak. Sagardotegia dantzan utzi ondoren, Hernani aldetik bueltatxo eman eta herrira buelta egin zuten parranda goxo-goxo amaitzeko.

**PARROKIKO OBREN BIGARREN FASEA HASTEAREN. HERRITARREK ETA ENPRESEK 65 MILIOI BAINO GEHIA-GO EMANGO DITUZTE.**

Parrokiko obretarako sortu zen Batzordeak 1.fasea ( dorrearen berriztaketa lanei zegokiena) ia amaituta dagoela jakinarazi du. 40 milioi inguruko kostua izan du lehen fase honek eta Aldundiak %70 ordainduko du, gainontzekoa Eusko Jaurlaritzak emandako 5 milioiekin eta herritarrek emandako diruarekin ordainduko delarik. Datozen hilabete hauetan 2. fasea jarriko da martxan eta horrela, Zinea eta eskubiko terraza kendu eta teilatua egingo da. Udalak 2.000. urteko aurrekontuetan 20 milioi aurrikusi ditu zinea bota eta ingurua apaintzeko. Herritarrek eman dituzten diru laguntzen gainean, honako datuak kaleratu dituzte: Soralueko 1.479 familietatik 673k baiezkoa diruz lagunduko dute. Laguntza hauek hiru urteetan jarraitzen badute, 49 milioi izango lirateke. Gainera erantzun anonimoetan ia milioi bat pezeta lortu dira.

Soraluzen jaio eta kanpoan bizi direnen laguntzak ere badira. Herrikoak ez diren enpresa batzuek ere eman duten laguntzarekin 10 milioi inguru batu dira eta herriko enpresek 6,5 milioi eman dituzte.

**Martxoaren 12ko hauteskundeak Soraluezen**

Joan den martxoaren 12an egin ziren Espainiar Estatuko hauteskundeetan, honako emaitzak eman atera ziren Soraluezen:

<b>Errolda</b> .....	2365
Emandako botoak.....	1358
EAJ-PNV .....	518 boto .....%36
PP.....	299 boto.....%25,2
PSE-EE/PSOE.....	294 boto.....%21,3
EA.....	177 boto.....%11,7
IU-EB.....	29 boto.....% 2,5
EH.....	(ez zuen parte hartu)
Zuriak.....	29
Baliogabeak.....	8



## Eskolaurrean euskalkiak erabili beharko liratekeela uste du Koldo Zuazok

Joan den martxoaren 17an, euskara batzordeak antolatuta, Koldo Zuazo unibertsitateko irakasle eibartarrak euskalkien gaineko hitzaldi bat eskeini zuen udaletxean.

Bertan, gaur egun euskalkiek bizi duten egoera, eta bere ustetan, euskalkiek euskararen barruan izan behar duten tokiak, zein izan behar duen azaldu zuen. Bere ustez, euskalkiek paper oso garrantzitsua betetzen dute eta bete dezakete etorkizunean ere, baina horretarako, azken urteotan hartu duen gainbehera moztu eta berriz indartu egin behar da. Esaterako, idatzian, aisialdian, eskolaurrean eta AEK-n euskalkiak presentzia indartsu bat izatea oso beharrezkoa dela azpimarratu zuen Koldok, beti ere herri mailako eramuaren gainean diardugula ahaztu barik. Hitzaldira, adin eta lanbide guztietako jendea hurbildu zen, tartean, ikastolako eta AEK-ko irakasle batzuk ere bai. Hauek, euskalkia irakaskuntzaren alorrean sarzearrekiko dituzten iritzi eta kezken berri eman zioten. Koldok bere partetik, hau aurrera ateratzeko egin beharreko lana,



Koldo Zuazo hitzaldia ematen

sarritan uste dugun bezin zaila ez dela eta irakasleek heurek izan behar dutela lan honen protagonista nagusiak adierazi zuen. Lehenagoko *Euskalkia versus (kontra) batua* gaudituta, gaur egun, *euskalkiak eta batua* esateak duen esanahia zein den, argi xamar utzi zuen.

### Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz-ek (E.H.E.) euskararen aldeko azoka eta afari herrikoia antolatu zituzten



15:00 rak alderako "saldu beharretxoak" zauden jada.

Joan zen otsailaren 26 an, 2. eskuko gauzen azoka antolatu zuten E.H.E.-koek Plaza Berrian. Eguraldi onak eta salgai izan zituzten gauza ugariak, nahiko jende erakarri zuen eta honi eskerrak zerbait baino gehigo saltzea lortu zuten antolatzaileek. Bertan batutako dirua, taldeak euskararen alde egin asmo dituen ekintzetarako erabiliko dela jakinarazi zuten. Bestalde, azokaz gain, afari herrikoia ere antolatu zuten, martxoaren 4 an Arrano Elkartearen. Jende ugari batu zen afarira, eta trikiti eta bertsoz alaituta, afaloste atsegina pasatu omen zuten denek.

### Batzordekide berriak Itxaropenan

Otsailaren 29 an Itxaropenan egin zuten Batzar Orokorrean aho batez onartu zen errektoretza batzorde berria. Honako hauek osatzen dute: Jaime Aristi lehendakari, Pedro Galarraga lehendakariorde, Enrike Placencia diruzain, Ignacio Pintado idazkari eta, Juan Mari Izagirre, Marcelino Perez, Ana Maria Aristi, Maria Pilar Agirrebeña eta Josefa Zaldua bokal.

### SAPAKo greba konpondu da

SAPAn, otsailaren 21ean hasitako greba mugagabea, martxoaren 6an bukatu zen. Hainbat tirabira konpondu eta gero, langileek, berriz ere, normaltasun osoz dihardute lanean.

Egoitz Unamuno

## ITUR Iturgintza

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa ana 20

Teléfono: 943751241

Soraluze

## TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena.

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

## Martxoaren 6an egin zen Udalbatzarra

Honako erabakiak hartu ziren:

• Soraluzeko Udalaren eta Euskaltel-en arteko lankidetzaren hitzarmena

Udalerrria kable bidezko telekomunikazio azpiegituraz hornitzeko asmoarekin, Udalak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Euskaltel-ekin. Udal batzarrean adierazi zenez, gas instalaziorako egiten ari diren obrak aprobetxatuta fibra optikozko kableak gasarendako egindako zanga berean sartzeak, herritarrei molestia txikiagoak sortzeaz gain, lanak errezago egitea ere ahalbideratuko du. Hitzarmenaren arabera, 9 milloi ingurukoak izango diren instalazioen guztizko gastuak, 5 urteren epean ordainduko dizkio udalak Euskalteli.

• Jose Agustin Agirregomezkorta jaunak Elizburu kaleko 3. zenbakian "Hortz-klinika" jartzeko egindako eskariari, baietz.

• Sagar-erreka auzoko 25. zenbakian "Estanpazio bidezko torloju fabrikaziorako" iharduera jartzeko, "Tornilleria Oruesagasti, S.A." -k egindako baimen eskaerari baietz.

• Gabolatz kalearen gainaldean dagoen lursailetik, 3.000 m<sup>2</sup> -ko saila erostea Maria Ariznabarreta Txurruka andreari (adostutako 2.925.000 pezetetan).

## Martxoaren 20an egindako Udalbatzarra

Beste batzuen artean honako erabakiak hartu ziren:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak, Soraluzeko S.I.I. Eremuaren Antolaketa Plan Partzialaren gainean agindako txostena ontzat ematea erabakitzen du aho batez onartzea erabakitzen du Udal Korporazioak.

Mariasun Alberdi eta bere senar Jose Ramon Larreategi jaunari, eta Ignacio Alberdi jaunari, Espilla baserriaren inguruko, 960 bat m<sup>2</sup>-ko lur saila (Etxeazpia, Bideburua eta Bideazpia edo Ezoziko Zubiondoa izeneko sailak) erostea, adostutako 892.800 pezetetan.

• Euskara Biziberritzeko Plana (2.000-2.003) onartzen da

Udalbatzak gehiengoz erabaki zuen, EAJ-PNV (bost), EH (hiru), PSE-EE (bat) eta Eako (bat) Batzarkideei zegozkien aldeko hamar botoz eta PP ko Batzarkideari dagokion abstentzioaz, 2.000-2.003 aldirako Euskara Biziberritzeko Plana onartzea. Alkateak adierazi zuenez, "Soraluzen, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea da." planaren helburu nagusia.

• Euskarazko irakaskuntzaren aldeko mozioa onartu zen

Alberto Sudupe alkateak adierazi zuenez "Euskal Herri osoan hezkuntza sistema egokitu behar da..." ikasle denek euskararen ezagutza eta erabilpen maila egokia lortu, eta horrela, gazte denak elebidunak izatea bermatuz. Mozio hau EAJ-PNV (bost), EH (hiru), PSE-EE (bat) eta Eako (bat) Batzarkideei dagozkien aldeko hamar botoz eta Ppko Batzarkideari dagokion aurkako botoz onartu zen mozioa.



Erretegi  
Jatetxea  
**ESOZIA**

B<sup>o</sup> Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

## BESTE KONTU

### BATZUK.

**ALDERDI POPULARRAK ELKARTUTAKO BIKOTEEN ERREGISTROA SORTZEKO ESKAERA EGIN ZUEN.**

Partidu Popularrak udalean duen, Javier Nuñez ordezkariak, Elkartutako Bikoteen erregistroa sortzeko eskaria egin zuen. Nuñez-en ustetan, gizabanako denak askatasunean eta berdintasunean bizi daitezela baldintzak lortzeko ezinbestekoa da erregistro hau sortzea. Alderdi popularrereko ordezkariaren eritziz, dagoeneko familia funtzioa ez dago, ezkontzako loturarekin bakarrik erlazionatuta eta egiteko familiei ere badagokie.

### 2.000. URTERAKO SUBENTZIOAK.

Honako hauek:

Inauterien aurrekontuari dagoenak 1.022.590 pezeta.

(Kirolen sailean, 1.999. urteko subentziotik ordaindu gabe dago en % 40<sup>a</sup>)

-Gimnasia Erritmikako Eskolari 34.887 pezeta.

-Ukaldi Judo Klubari 59.130 pezeta.

-Kirol Bazkuneko mendi sailari 162.814 pezeta.

-Kirol Bazkuneko pelota sailari 395.407 pezeta.

-Plaentzia Herri Ikastetxeari (kirol jantziak erosteko)

100.000 pezeta.

Egoitz Unamuno

## MENDIZABAL OKINDEGIA



Kalebarren, 10 -Tlf: 943752091  
Baltegieta, 6 -Tlf: 943751399



**ETXEAK**

zure esku

...eta kitto!  
drogeteniturri  
goibekokale  
pil pilean**INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**

Honakoa da Eibarko ...eta kitto!, Elgetako Goibekokale, Ermuko Drogeteniturri eta Soraluzeko Pil pilean aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun INMOBILIARIEN GEHIGARRIA. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia, Soraluze eta kostaldean banatuko dugu ale berezi hau.

**11.100 ale** kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia. 2000ko martxoa  
Publizista: Mertxe Agirre. Diseinua eta maketazioa: Koldo Mitxelena Zumaran.  
Tirada: 11.100 ale. Tel. 943 20 67 76. Faxa. 943 20 67 76

**EUKI Inmobiliaria.****EIBAR****Toribio Etxebarria 1****Tel. 943 20 03 58**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ifar kale	Eskaparate handiak dituzten lokal komertzialak salgai.	Galdetu
ELGOIBAR	Arriaga industrialdea	Pabilioi industrial berriak salgai. 2.300 m <sup>2</sup> (banatzeko moduan).	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	5 logela, 2 komun, egongela/jangela, sukaldea eta despentsa. 130 m <sup>2</sup>	Galdetu
EIBAR	P. Arosa eta Murrategi	Buhardilak salgai.	Galdetu
EIBAR	Isasi	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 60 m <sup>2</sup> . berritzeko.	Galdetu
ELGETA		Garajedun etxebizitza berriak.	Galdetu

**GARMENDIA Inmobiliaria.****EIBAR****San Juan 9, behea****Tel. 943 20 34 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Estaziño kalea	3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 117m <sup>2</sup> .	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Amañako dorreak	2 logela, egongela eta sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Urki behea	3 log., egong., suk., komuna eta ganbara. Berriztuta.	Galdetu
EBAR	Argatxako jardinak	Lokala (135 m <sup>2</sup> ). Berriztuta. Aukera ezinhobea.	Galdetu
TORREVIEJA ETA NOJAN	Pisuak salgai	eta ELGOIBARREN baserria salgai.	Galdetu

**CARLOS VEGA Inmobiliaria.****EIBAR****San Juan 1****Tel. 943 70 16 57**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Ego-gain	305 m <sup>2</sup> -ko lokala (beheko solairua) eta 511 m <sup>2</sup> -ko solairuarterkoa.	Galdetu
EIBAR	Ubitxa	Solairuarterkoa salgai. 490 m <sup>2</sup> .	Galdetu



**IBAI-ONDO Inmobiliaria.**  
**EIBAR****Bidebarrieta 60**  
**Tel. 943 20 12 13**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Miraflores	Baserria terrenoarekin.	Galdetu
EIBAR	Barrena 10	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Urkizu (Orbeako dorreak)	3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Barrena 44	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Bittor Sarasketa 8	4 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Arragueta 12	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Jardineta 33	2 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa.	Galdetu
EIBAR	Txonta 13	2 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
EIBAR	Txonta 13	2 log., egong., sukaldea, komuna, despentsa, terraza.	Galdetu
EIBAR	Errebal 23, 1.	4 logela, sukaldea/jangela, egongela/jangela, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Errebal 23, 3.	4 logela, sukaldea/jangela, egongela/jangela, 2 komun.	Galdetu
EIBAR	Estaziño 10	4 logela, egongela, sukaldea, komuna, ganbara.	Galdetu
NOJA		Apartamentua garajearekin.	Galdetu
MUTRIKU	Iriagirre	3 logela, egongela, sukaldea, komuna.	Galdetu
AJO		Txaletak. Prezio interesgarria.	Galdetu
EIBAR	Otaola	Lokala (175 m <sup>2</sup> ). Alokairuan.	Galdetu
EIBAR	Asua-erreka	Lokala, prezio izugarria.	Galdetu
EIBAR	Legarre	Lokal komertziala. Antzinako modelo. Oso prezio ona.	Galdetu
ERMUA		Lokal komertziala (330 m <sup>2</sup> ), leku ezinhobean.	Galdetu
EIBAR	Urkizu (Orbeako dorreak)	Lokal komertziala oso prezio onean.	Galdetu

**EDER Inmobiliaria.**  
**ZARAUTZ****Trinidad 1, behe**  
**Tel. 943 13 13 00**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZUMAIA	Etxezarreta plaza	3 log., egongela, ganbara. Bista ederrak.	29.000.000
ZARAUTZ	Hondartza parean	Apartamentua. 14 m <sup>2</sup> ko terraza.	29.500.000
ZARAUTZ	Golf-aren inguruan	3 log., egong. Terrazak ipar eta hegora, ganbara, garajea. bista ederrak.	28.000.000
ZARAUTZ	Azken portu	3 logela, egongela, terraza.	29.000.000
ZARAUTZ	Nafarroa kalea	4 logela, egongela. Ekialdera eta terraza mendebaldera.	42.000.000
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela, egongela. Iparra eta hegoa.	31.000.000



**AZKEN PORTU Inmobiliaria.**  
**ZARAUTZ**

**Urdaneta 1**  
**Tel. 943 83 50 00**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUTZ	Azken Portu	3 logela, bainugela, komuna, sukaldea, egongela.	29.000.000
ZARAUTZ	Erdialdean	3 logela, komuna, sukaldea, egongela, berriztuta.	31.000.000
GETARIA		3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa.	20.500.000
ZARAUTZ	Zelai ondo	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bodega.	28.000.000
ZARAUTZ	Gipuzkoa kalea	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela. Estreinatzeko.	49.000.000
ZARAUTZ	Zuhaizti	3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, itsasora begira. Garaje bikoitza.	57.000.000

**LARRAGEST Inmobiliaria.**  
**EIBAR**

**F. Calbeton 22-24**  
**Tel. 943 20 00 12**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
MUTRIKU	Magdalena kalea	3 log., egong., 2 komun, suk., duplex-a izan daiteke. Aukera ona.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	4 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa.	Galdetu
EIBAR	Polonia Etxeberria	2 log., egong., suk., komuna. Kalefakzioa, eguzkitsua, berriztuta.	Galdetu
EIBAR	J.A. Iturrioz	2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Terraza. Aukera ona.	Galdetu
EIBAR	Urki	3 log., egong., suk., bainug., komuna, gasa suk., kanpora, sartzeko moduan.	Galdetu
EIBAR		Tamainu askotako lokalak salgai eta alokairuan	Galdetu

**E  
L  
G  
E  
T  
A**

**ERAIKUNTZAREN**  
**2. fasea**

- ➔ Etxebizitza bikainak
- ➔ Lokalak
- ➔ Garajeak

**INFORMAZIOA: 943 76 11 23**

U.T.E. URIBURU  
Construcciones Mauricio Arregui, S.A.  
Construcciones Sukia, S.A.

**Larragest**  
AGENTZIA INMOBILIARIOA  (353)

*hiru belaunaldi  
merkatu inmobiliarioaren  
zerbitzura*

Fermin Calbeton, 22-24 behea Tel. 943 20 00 12  
20600 EIBAR

**EUKi**  (323)

**ETXEAK ETA GARAJEAK SALGAI**

**Elgetan** (San Roke klean)

T. Etxebarria 1 -EIBAR- Tfnoa. 943 20 03 58



JUARISTI Inmobiliaria.

EIBAR

R. JUARISTI API

Arragueta 2-bis B

Tel. 943 20 08 60

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Arragueta	2 logela, sukalde/jangela eta komuna. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	J.A. Mogel	3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara.	Galdetu
EIBAR	Plaza Barria	4 log., egong., suk., bainug., komuna, despentsa. kalefakz.	Galdetu
EIBAR	Barakaldo	3 log., egong., suk., komuna. Kalefakzioa. Garajea.	Galdetu
EIBAR	Paziano Arosa	2 log., egong., suk., komuna, ganbara. Berriztuta.	Galdetu
EIBAR	Txonta	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	8.000.000
EIBAR	Romualdo Galdos	3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
EIBAR	Barrena	Buhardila erako etxea.	4.500.000
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna.	Galdetu
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	Lokal komertziala. 280m <sup>2</sup> .	13.500.000
ERMUA	Gipuzkoa etorbidea	Lokal komertziala. 758 m <sup>2</sup> .	Galdetu
EIBAR	Otaola hiribidea	Lokal industrialia. 600 m <sup>2</sup> . Instalazioarekin.	Galdetu
EIBAR	Zuloagatarren	Lokal komertziala. 320 m <sup>2</sup> .	Galdetu



## INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

35.000  
irakurle

11.100  
ale

Lau aldizkarion elkarlana  
zuen buzoietan

DROGETENITTURRI

Pil  
bi  
ean

Goibek  
kale





# Ikasleen euskera batzordea

Oraintxe jakin dugu D.B.H.ko ikastetxean, institutuan, Euskarazko talde bat lanean ari dela eta gehiago jakin nahian beraiengana joan gara galdera sorta batekin. Interesgarria benetan!

**Nola deitzen da zuen taldea?**

Tipi Tapa. Tipi Tapa euskara batzordea.

**Zer egiten duzue?**

Jendeak Euskeraz hitzegiterakuan egitten dittuen akatsak: "porke", "eske"...:zuzentzen ahalegintzen gara eta euskararen aldeko ekintzak, lehiaketak prestatu..

**Zelan okurritu zitzaizuen taldea sortzea?**

Maixu batek proposatu zeban ideia bat izan zan eta ikasle batzuk presentatu ginan talde hori sortzeko..

**Nortzuk apuntatzen zarete?**

Euskera bultzatzia nahi dogunok, kurtsu danetako pertsonak.

**Non apuntatzen zarete?**

Ilkastolako zuzendaritzan, lñaakik hartzen dan izena.

**Zertarako da?**

Euskeriaren alde egitteko, euskaria bultzatzeko, erabileria haunditzeko. Euskaria aurrera erauateko bai eskola orduetan, bai eskolatik kanpo.



Tipi Tapa euskara batzordea

*“Euskaria bultzatzia,  
erabileria haunditzia  
da gure nahixa”*

**Noiz**

**elkartzen zarete?**

Ilkastolako jolasorduetan, asteartietan eta ostegun askotan.

**Non ikusten da taldearen lana?**

Pasilluan daren karteletan, gelaz gela jartzen diran lehiaketako galderetan. Hiruhilabeteko amaieran joku batzuk egitten dittugu euskeriaren alde: kirol ekintzak, tarta lehiaketak, konkurtsuak eta hilabetero lehiaketa bat dago.

**Zenbat zarete?**

15 gutxi gora behera.

**Zenbat denbora daramazue taldean?**

Bazuk bi urte, beste batzu aurten hasitta .....

**Zenbat urte dituzue?**

12 tik 15 era bittartian.

**Zer asmo duzue egiteko?**

Euskaria bultzatzeko orain galdera batzuk dittugu ipinitta gelaz gela, jendeak erantzuteko akatsak zuzentzen ahalegintzeko. Hurrengo hiruhilabetean beste lehiaketa bat asmatuko dogu. Kurtsu amaierarako gynkana bat prestatzia pentsatu dogu.

**Zer gauza egitten dituzue?**

Marrazkixak, lehiaketak (tarta lehiaketa, galdera-erantzun lehiaketa), zuzenketak, esaera zaharrak, liburu eta disken azoka eta kartelak jarri paretetan euskerazko bertsuekin.

**Pozik al zaudete egin duzuen lanarekin?**

Bai.

OHO-ko 6. mailakoak

**INAKI IÑARRA**

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 3/8 tlf: 943751249

SORALUZE

**JUAN MARI  
ARRANDEGIA**  
**ARRAIN FRESKU - FRESKUA !!**

TLFNOA: 943752440

SORALUZE



# 2000ko Karnabaleri begira



Ludotekan ere JO ta SUA !!



Arratsaldian extralurtarrak, beste planeta batetatik iritsi eta bigarren saria lortu zeben



"Spice Girls"-i kompetentzia egitteko moduko neska edarrak !!



Arratsaldian txapeldun !!



Plaentxiko tuna berria !!



Klaudiatxo Shifer eskeletua mugitzen !





Urpeko gazterixia ondo hornituta  
juergarako prest!!



Edarrenetan edarreña



Gaueko  
Txapelduana



AFRO-BASERRITTARRA



ABBA taldekuak datorren urtian Plaza  
Zaharrian joko dabe



Lehiaketan lehenenguk opariak,  
bigarrenak marrubixak eta hirugarrenak  
Kultura batzen.com



# Arrate Azkonak markak hausten

*Iñaki Alberdi*

Arratek, azkenengo egunetan, hainbat txapelketatan parte hartu du eta ohi bezala, lortutako emaitzak ezinhobeak izan dira.


Horrela, kadete mailan izandako Euskadiko Txapelketan, "pentathlon" modalitatean errekor berria ezarri zuen 3574 punturekin, aurreko marka 300 puntutan gaindituz; Espainiako errekorra, berriz, 150 puntutara dauka Arratek eta berak azaldutako progresioa ikusirik ez litzateke arraroa izango laster batean marka hau haustea.

Arratek bost frogetan parte hartu behar izan zuen( altuera jauzia, hesi lasterketa, 600 metroak, pisu jaurtiketa eta luzera jauzia) eta aipatu behar da 5 froga hauean lehenengo postua lortu zuela.

Bestalde, egun batzuk beranduago jokatu Espainiako Txapelketan, Arratek urrezko dominak lortu zituen altuera eta hirukoitza jauzian. Altueran, listoia 1,76 metrotan zegoen, altuera hau nahiko erraz gainditu zuelarik. Jarraian, listoia 1,81 metrotan ipini zuten, berak duen errekorra hobetu nahian ( hau kadete mailako errekorra da ), baina bere ahaleginean ez zuen lortu bere helburua.

Hirukoitza jauzian ,beriz, Espainiako errekorra hautsi zuen 12,28 metrorekin. Kontuan izanik, Arratek azken egunetan bizkarreko mina izan zuela, lortutako emaitzak balio haundiagoa duela esan dezakegu.

Azkenik aipatu, Arrateren lana saritu nahian, Soraluzeko Udaletxeak, martxoaren 14an merezitako omenaldia eskaini ziola. Ekitaldi honetan, Arrate saritzeko, Alberto Sudupe alkateak,



*Arrate Azkona*

Jose Luis Badiola eta Diputazioko Kirol arduradunak parte hartu zuten.

# Juan Alberdi ere bikain

*I. A.*


Juantxok ere, azkenengo hilabetean, Behobia-Donostia lasterketan lortutako emaitza kasualitate hutsa ez zela izan egiaztatu du. Juantxok bi frogetan parte hartu du:

Azkoitiko Iraurgi taldearen koloreak defendatuz, bat Zumaian (10,5 km) eta bestea Zestoan (8,5 km). Zumaian bigarren izan zen, Richard Fernandez- engandik 34 segundutara geldituz; Zestoan, berriz, lehen postua lortu zuen.

Azkenengo emaitza hauek adierazten dute, Juantxok, bere aukera eta indarrez jabetu den momentu beretik, benetako jauzi kualitatiboa eman duela.

Emaitz hauek ikusirik, Juantxo desafiatu zutenek beraien saiakeran jarraitu ote nahiko duten galdetzen diogu gure buruari, edo agian emaitza hauek, gehiago motibatzeke balio izango ote dute?

*Juantxok Zestoako proban (8.5 km) lehen postua lortu zuen*



*Juantxo proba baten*

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      ff: 943752150  
138 Postakutxa      Faxa: 943752118

**SORALUZE**



**PASCUAL CHURRUGA S.A.**  
Tornilleria estanpada

Errekalde 21  
telef. 943751600 eta 943751604  
Faxa 943 752461      20590 SORALUZE

# Demaseko emaitzak Pilota Taldeak lorturikoak

I. A.

Soraluzeko Pilota Taldekoek egun hauetan, Debarroko txapelketaren barruan, Elgoibarko Lagunak, Elgetako Oskarbi eta Debako Eukal-Jolas taldekoak izan dituzte arerio moduan. Elgoibarkoen aurka Laskurain eta Herizek lortutako garaipena izan zen aipagarriena, beraien arerioak 11 tantotan utzi zutelarik. Elgetakoen aurka jokatuko norgehiagokan, Plaentxitarrek bi partiduetan Elgetakoak menpean hartu zituzten; jubeniletan, Elizburuk eta Jauregik 22ra jokatutako partiduan, beraien arerioak 5ean utzi zituzten eta, seniorretan, berriz, Laskurain eta Herizek, 12 tantoko aldea atera zuen atera zuten.



Pilota Taldearen partidu bat

Azkenik, Debararren aurka jokatutako hiru partiduetan ere, garaipena lortu zutela aipatu behar dugu. Soraluzen aldetik jokatu zuten pilotariak Txurruka, Izagirre, Elizburu, Jauregi, Laskurain eta Heriz izan ziren.

Emaitza hauek Soraluzeko Pilota Taldeak egiten duen lan onaren ondorioa besterik ez dira. Pil-Pileanetik ziur gaude etorkizunean, horrela jarraituz gero, Soraluzek zeresan handia emango duela pilota munduan.

## Futbola

## Soraluze F.T.-a denboraldiko azken txanpan

Soraluze Futbol Taldeak, azkenengo hilabetean lortutako emaitzak ez dira hasieran denok espero eta nahi genituenak.

Erregionalak 12 puntu zituen jokoan eta hauetatik, 4 besterik ez ditu lortu. Egia da, azken bolada honetan, Iñigok entrenatzen dituen jokalariek, lesio ugari jasan dituztela eta partidu gutxitan izan du plantilla osoa bere esanetara. Honek, zalantzarik gabe, entrenatzailearen lana oztopatzen du eta ondorioz, lortutako emaitzetan islatzen da. Hala eta guztiz, partidu gutxi falta direnean, Soraluze F.T.a 10.postuan aurkitzen da eta ez dugu uste zailtasunik izango duenik maila mantentzeko.

Ezin dugu gauza bera esan jubilatuenengatik; hauek, azkenengo partiduetan

puntu bakarra lortu dute. Zarobek entrenatzen duen taldea benetan egoera larrian dago; momentu honetan 16.postuan daude (Txapelketan 18 taldek parte hartzen dute) eta kontuan izanik 4 taldek galtzen dutela maila, Soraluze, horietako bat ez izateko, azkenengo partiduetan aldaketa izugarria adierazi beharko du hau gerta ez dadin.

Kadeteak, berriz, erregionala eta jubenila ez bezala, denboraldi ona egiten ari direla esan daiteke. Lehen fasean, igoera fasea jokatzeke sailkapena lortu zuten Raskonek entrenatzen dituen gazteak partidu ederrak jokatu eta gero. Izan ere, orain, nahiz eta lortutako emaitzak oso txarrak ez izan, igoera emango duten postuetariko bat (3 taldek igotzen dute) lortzea zaila dirudi; hala



Soraluze F.T.-ko kadete taldea

ere, azken unera arte ezingo dugu ezer esan, kadeteak nola jokatzen duten ikusita, edozer espero baitaiteke.

Pil-Pileanek jakin ahal izan duenez, hauetako gaztetxoren batek, datorren urtean maila haundiko talderen batean joka dezake, Errealean agian? I. A.

campesiones ediziorik laguntza le.

En la edición de esta publicación colabora

#kutxa fundazioa fundación

**KONTSUMO KOOPERATIBA**

JANARI  
ZEBIN  
JANTZIAK

TEL: 943751345




## Marisko koptela



Cristina 22 urteko sukaldari gaztea baina trebea dugu. Badira 5 bat urte sukaldaritza mundu honetan dabilela eta oso gustora omen dago. Momentu hauetan Bergarako jatetxe batean lanean jarduteaz gain, hemengo "Gaztelupe" tabernako pintxo bereziak ere berak gertatzen ditu. Cristinak, oraingo honetan, "marisko koptela" nola egiten den erakutsiko digu.

*Cristina Morales*



### Nola egin:

**Barazki guztiak** ondo zatitu behar dira. Langostinoak, mejiloiak eta ganbatxoak egosi eta hauek ere zatitu, hiru lau langostino osorik utziaz apaintzeko. Ondoren, "binagreta" bat egin eta dena nahastu behar da.

*Aurkezpena:* Plateraren erdian egindako nahaste guztia pilatuko da. Apaintzeko, osorik utzitako langostinoak eta mahonesa erabiliko ditugu. Azkenik, perrexil txikituarekin apainduko dugu guztia.

### Osagaiak:

- piper berdea
- piper gorria
- kipula
- berakatza
- mejiloiak
- langostinoak
- ganbatxoak
- mahonesa
- "binagreta"
- gatza

*On egin!!*

## SALAZAR

### Altzariak

Altzariak-Apaindurak  
Sukaldeak- Elektratresnak

Errekalde 7      Telefonoa/faxa:943752388  
20590 Soraluze

## ARRANO-TABERNA

### SORALUZE



*MARTXA eta BORROKA*

## SAN ANDRES

ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUAK

TLF: 943751646  
RABAL 2 SORALUZE

## ARANE

Kinodlegia



Tel: 943752466

## Garai bateko argazkixa



Jose Zabaleta

Valentin Larraga

Tomas Ariznabarria

Vicente Gurrutxaga

Esteban Maiztegi

Isaac Arrieta

Juanito Lopez


Rufino Begil

Iturria: Rosarito Zabaleta

### Jubilauen eguna

Hiruroegiko hamarkadan gure udalak bazkai bat eskaintzen zotxen herriko jubilau gizonezkueri. Argazki hau jatordu haietako batian etarata dao, kainonezeko ekonomatoan. Ikusten danez giro onian ospatzen zebe euren eguna paparran klabelin bat txintxilizka zekela dotore dotore. Erretirua hartutako andrak, berriz, opariz betetako saskiak jasotzen omen zittuen.

Aitorren



## LEHIAKETA

**Zein da argazkixan agiri dan andre dotore eta moñoña hau?**

**Erantzuna baldin badakizu deittu bildurrik bari gure telefonora, eta zure izen abizenak emon. Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke. Deittu segittuan!!**

**Telefonoa: 943 75 13 04**

**ETXEBARRI®**

Barra kargadore automatikoak  
Tuerka roskatzaileak  
Ranuratzaleak  
Makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Estazioa 7, Posta Kutxatila 62  
Telefonoa (943) 75 18 91  
Faxa 75 18 91

20590 SORABILIZEE - PLACENCIA  
(Gipuzkoa)

**GILA TABERNA**  
**OSO GIRO ONA!!**



# Hormatzulotik begira

## JAIOTAKOAK

Markel Gorostidi Hidalgo.  
2000-2-12  
Lorea Uriarte Soria.  
2000-2-17  
Yaiza Fulgencio Rolo.  
2000-2-19

## HILDAKOAK

Berisima Fernandez García.  
María Lluís Riera.

## EZKONDUAK

Moises Altuna eta Esther Pa-  
gei  
2000-03-18

**DEITU 943 75 13 04**  
**ETA UTZI ZURE**  
**MEZUA APIRILAREN**  
**15A BAINO LEHEN.**

## TELEFONO INTERESGARRIXAK

Udaletxea .....	.943 753043
Faxa .....	.943 753112
Udaltzaingoa .....	.943 753024
Bake Epaitegia .....	.943 751989
Arane Kiroldegia .....	.943 752466
Osasun Etxea .....	.943 752259
Larrialdiak-Elgoibar .....	.943 743354
Larrialdiak- Donostia .....	.943 461111
Zabaleta Botika .....	.943 751384
Escala Botika .....	.943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea .....	.943 752330
Zaharren Egoitza .....	.943 751136
Soraluze Kirol Elkarteak .....	.943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza .....	.943 751544
Lehen Hezkuntza .....	.943 751937
Soraluze DBH Institutoa .....	.943 752365
Euskaltegia -AEK- .....	.943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria .....	.943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	.943 753017
Taxia .....	.943 751993/ 607 220808
Postetxea .....	.943 751947
Apaiz Etxea .....	.943 751370
Ertzaintza -Bergara- .....	.943 765340
SOS Deiak .....	.112

## ZORION AGURRAK

**Iker Etxabe Madrid** Urte bat  
2000-04-11  
Zorionak!!! zure lehenengo urtebetetzian  
Gurasoak, tio Aitor eta beste senidiak

**Ixone Inarra Aranburu** 9 urte  
2000-03-20  
Zorionak!! eta Urte askotarako  
Gurasoak eta Nerearen partetik

**Oihana Mendizabal Gorostidi** 20 urte  
2000-4-8  
Zorionak eta muxu handi bat.

**Nerea Alvarez Maiztegi** 7 urte  
2000-4-8  
Mendi taldearen partez zorionak.

**Iker Tardio Gorostidi** 16 urte  
2000-4-30  
Zorionak eta muxu handi bat.  
**Sabin Mendizabal Plazaola** 21 urte  
2000-4-11  
Zorionak eta muxu handi bat.

**Beñat Catalán Arenaza** 10 urte  
2000-3-18  
Zorionak eta musu handi bat zure  
senitartekoen partez.

**Jose Luis Catalán Zulaika** 42 urte  
2000-3-20 42  
Zorionak gero eta gertuago 50 urteetatik  
eeee...

## KEXAK

Martxoaren 18 xan Enaitz Lasku-  
rainek deitu eta honako kexia azal-  
du zeban: "Aupa! Nik deitzen dot  
Pil-Pilean aldizkarixa heltzen ez  
jatala esateko. Badakit sartzen  
dozuela baserrietako buzoieta  
baina, buzoiak be ez dare bihar  
leukien moduan da.. ez dogu sekula  
hartzen etxian. Agur eta ia buzoiak  
konpondu edo bestela aldizkarixa  
baserrietara ekartzen dozuen."

## MEZEN ORDUTEGIA

**Astegunetan:** Arratsaldeko 19:00tan  
(elebiduna)

**Larunbatetan:** Arratsaldeko 19:00tan  
(euskeraz)

**Igande eta jai egunetan:** Goizeko  
9:00tan (Gaztelaniaz), 11:00tan (ume-  
entzat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)

Gertaera salatu edo txalotzeko :  
943 75 13 04. Izen abizena beharrezkoa




Zuen hildakoen  
eskela,  
eskerrona edo  
urteurrena  
jarri nahi baduzu,  
oraintxe duzu aukera  
Pil Pileanen.

943 75 13 04

## ILARGIAREN ALDIAK

### Ilberria



Apirilak 4 martitzena.

### Ilgora



Apirilak 26 martitzena.

### Ilbetea



Apirilak 18 martitzena.

### Ilbera



Apirilak 11 eguaztena.

Sail honetan agertzen  
diren iragarkiak do-  
hainekoak dira. Parti-  
kularren iragarkiak  
argitaratzen ditugu  
bakarrik. Pil Pileanek  
ez du argitaratzen di-  
ren iragarkien ondo-  
rioz sor daitezkeen  
operazioen erantzun-  
kizunik.



SASOI EDERRA DA TA  
GOZATU DEIGUN  
UDABERRIXA!!

Pil   
bi ean

Pil   
bi ean

Anai-arrebak entzun ene ahotsa:  
izaite bat ez daíke hezur utsez osa;  
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;  
bertzetik bereiatean bitarik bakotxa,  
izaite horrendako segurra hilotza





**GAZTELUPEKO  
HOTSAK**



**Joseba Tapia**  
QUÉBEC kantari  
Pascal Gaigne  
Itxaro Borda  
Koldo Izagirre...

TH 943753016 Faxe 943750139 94.p.k. Soraluze 20590



**Lorelei**


Tatuatu zenidan zerua

Asier Serrano eta  
Mikel Gorosabel "Norton"  
Beraien bigarren lana



**Mikel Urdangarin**  
Haitzetan

Kantari bizkaitarraren  
lehen grabazioa



**Ene Bada**

Durangaldeko  
boskote Gaztea


Triki-rock Ai ene!!!!



**Mikel Markez**

Dena hankaz gora

Eta Pako Aristirekin  
Tribuaren hitz galduak



**Petti**

Amets bat

Euskal Yarragh  
Folk-blues

Berako harrobia



**Mikel Telleria**

Deklarazioa

Pop-rockaren hildotik



**Piztiak**

Zero

Talde rokanroleroaren  
diskorik rokanroleroena

Bideoklipa PCrako



**Bide Ertzean**

Zure Minari

Ubeda anaien proiektua  
Kaki Arkarazok ekoiztua



**Su Ta Gar**

1987-89

Hasierako maketen  
kantuak

Jo Ta Ke klipa PCrako

**æek heldu  
EZSKARARI!**



**Aldizkari honek Soraluzeko Udalaren  
dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**

